



ZURE GORPUTZA
IS FOREVER

HIRI-TRIBU BERRIA

Tribu berri bat asmatu eta sortzea,
identitate ideologiko eta estetiko.

| HELBURUAK | METODOLOGIA | PARTE-HARTZAILEAK | IRAUPENA |
|--|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Gazteei euren jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea. • Gazteen sormen-gaitasuna bizkortzea. • Euren imaginarioa aditzera emateko, irudiak sortzeko gaitasuna sustatzea. | <p>Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Brain-storming-ak. • Eztabaida. • Errealitatearen azterketa. • Tribu berri baten ideologia eta irudia sortu. | <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10 • Adina: 14 – 18 | <ul style="list-style-type: none"> • 4 saio: 2h/s |

GURE TRIBUAK EZ
DU KOLORE JAKINIK

Argitaratzailea:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava



PKNTERES - EN AZALEAN AGERTU NAHI AL DUZU? KONTAGUZU!

pkntereres@vitoria-gasteiz.org



2008ko ekaineko azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKTexpres*es Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espiritu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKTenteres* aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKTenteres* (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilero argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKTenteres*: www.vitoria-gasteiz.org/pktenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. HIRI-TRIBU BERRIA

Laborategi soziologikoa izango da. Nerabeen imaginarioa eta errealitatea aztertuz, tribu bat definitzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak dituen hiri-tribu berria sortuko dugu: ideologia, jarduerak eta kezka komunak, irudia, musika gustuak eta nortasuna.

Gizarte-talde berriak lantegiko parte-hartzaileak definituko ditu. Denen ezaugarriak sintetizatzen dituen eta denak identifikatzen dituen subjektua sortuko dute.

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKTexpres*es lantegien helburu orokorrak:

- *PKTenteres* aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatzea.
- Elkartasuna eta begirunea sustatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbilketa-formulak sortzea.
- Gazteen artean parte hartzeko lotura berriak sortzea.

*PKTexpres*es lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiek *PKTenteres* aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.

Jaits ezazu *PKTenteres* 53. zbk. (2008ko otsaila)
www.vitoria-gasteiz.org/pktenteres



Hiri-tribu berria lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Nerabe-taldearen interesen eta kezken berri izatea.
- Haien jardunean praktika egokiak sustatzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
- Gazteen sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Haien imaginarioa aditzera emateko, irudiak sortzeko gaitasuna sustatzea.
- Hiritar aktibo gisa edukien sormenean eta zabalkundean bizkortzea.
- Inguruko mundua aztertzeko duten gaitasuna suspertzea.
- Berdintasunean eta genero kontuetan hezteak.
- Espiritu kritikoa eta autokritikoa bultzatzea.

3. EDUKIAK

Hiri-tribuak
Hiri-tribuen ezaugarriak
Hiri-tribuen historia
Irudia
Forma, irudia eta edukia.

“Tribu berriari “Lagunak” izena jarri diote, beraientzat laguntasuna delako garrantzitsuena. Estetika “askea” izango dute, denak ados daudelako lagunak izateko ez dela behar berdinak izatea”.

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea izango da. Zenbait hiri-tribuen historiaren errepaso egingo dugu, jatorria eta sortzeko arrazoiak zeintzuk izan ziren azalduz. Gaur egungo gizartearen azterketa egingo dugu, sortuz joan diren, edo sortzeko bidean diren, hiri-tribu berrietan erreparatuz. Parte-hartzaileek euren hiri-tribuaren ezaugarriak zehaztuko dituzte.

Brain-storming-ak
Eztabaida
Errealitatearen azterketa
Tribu berriaren ideologia eta irudia sortu.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 16 lagun
Adina: 14 – 18 urte
Sexua: Talde mistoa

Judimendiko Gazte Klubeko erabiltzaileak. Taldea ez da homogenea, klubera joateko ohitura dute, baina ez dira beti berdin joaten. Bakoitza bere erara.



6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2008ko urtarrileko 4 egun (16, 18, 23 eta 25)

Urtarrilak 16-2h eta 30 min (18:00-20:30).

Urtarrilak 18-2h eta 30 min (18:00-20:30).

Urtarrilak 23-2h eta 30 min (18:00-20:30).

Urtarrilak 25-2h eta 30 min (18:00-20:30).

7. KOKAPENA

Judimendi Gizarte Etxeko Gazte Klubeko lokala.

8. MATERIALA

Materiala:

- Bulegoko materiala (folioak, errotuladoreak, zinta itsasgarria, kartoi meheak).
- Ebaluazio-inkestak
- Adibideak: albisteak edo kartelak.
- Lan egiteko aldizkariak eta argazkiak.
- Tribuaren ezaugarriekin betetzeko fitxa.
- Mozteko aldizkariak eta irudiak.
- Argazki-kamera.
- Ordenagailua eta bideoak

Azpiegiturak:

- Mahaiak eta aulkiak dituen gela bat.
- Tribuaren imaginarioa sortzeko materiala.

OHARRA:

Gazte Klubeko begirale den Estiren laguntza ezinbestekoa da lantegia baloratzeko eta ebaluazio-adierazleak zehazteko.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta enpatia maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa

4eranskina: 4. saioa

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK

Nerabe-taldearen interesen eta kezken berri izatea.
Inguruko mundua aztertzeko duten **gaitasuna suspertzea.**

| DENBORA | EKINTZAK | EDUKIAK | MATERIALA |
|---------|---|------------------------------------|---------------------------------------|
| 10 min. | PKTaren aurkezpena | PKTexpreses | PKTenteres (aurreko zenbakiak) |
| 10 min. | Lantegia azaldu | Hiri-tribu berria | |
| 20 min. | Jarduera azaldu: tribu berria sortzea. | Hiri-tribuak Historia Irudia | Adibideak: albisteak edo kartelak. |
| 20 min. | Brain-storming-a | | Bulegoko materiala Kartoi meheak |
| 30 min. | Ezaugarriak identifikatu | | Lan egiteko aldizkariak eta argazkiak |
| 30 min. | Bideo-emanaldia | Hiri-tribuak historian zehar | Ordenagailua eta bideoak |

PKTaren aurkezpena-----10 min.

Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... azalpen laburra.

Lantegia azaldu-----10 min.

Lantegia azaldu: Hiri-tribu berria. Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra.

Albiste-collage baten azalpena-----20 min.

Adibide gisa, zenbait triburen historiaren inguruko materiala erakutsiko dugu. Tribuetan ezaugarri komunak zeintzuk diren ikusi eta zergatik sortzen diren aztertuko dugu.

Brain-storming-a-----20 min.

Agertu diren hiri-tribuak deskribatzeko brain-storming-a. Parte-hartzaile bakoitzak bere ikuspuntua azalduko du eta denen artean, tribuen zenbait irudi aztertuko ditugu. "Hiri-tribuaren" kontzeptuaren inguruan ere hausnarketa egingo dugu.

Adibide gisa hartuko ditugun tribuak honako hauek dira: heavieak, hip-hop zaleak eta "visual keys" izenekoak. Tribu hauen jatorriari buruz hitz egingo dugu eta zergatik eta zein testuingurutan sortzen diren azaltzen saiatuko gara.

Ezaugarriak identifikatu-----30 min.

Ideologia, estetika, musika gustuak eta antzekoak dira tribu guztiek komunean dituzten ezaugarriak. Ezaugarri-zerrenda bat egingo dugu eta ondoren, zerrenda horretatik abiatuz, gure taldearen ezaugarriak definituko ditugu.

Tribu berriak zergatik sortzen diren aztertuko dugu, ideologia, ezaugarri komunak, talde-faktorea eta "talde bateko partaide izatearen garrantzia" daude zergatik horien artean. Bestelako arrazoiak ere aipatuko dira, esaterako, "jendearekin ondo konpontzea", edo "talde batean, ez bazara ondo konpontzen ez zaituzte onartuko" bezalako kontuak.

Bideo-emanaldia-----30 min

Hiri-tribuen inguruko zenbait bideo ikusiko ditugu.



2. SAIOA

HELBURUAK

Gazteen jardunean **praktika egokiak** sustatzea.
Hiritar aktibo gisa edukien sormenean eta zabalkundearen bizkortzea.

| DENBORA | EKINTZAK | EDUKIAK | MATERIALA |
|---------|--------------------------------------|---|--|
| 10 min. | Ongietorria | Pertsonalak | |
| 30 min. | Tribu berria definitzeko fitxa bete. | Tribuaren zenbait ezaugarri: irudia, musika gustuak, ideologia, jarduerak, kezka komunak eta nortasuna. | Tribuaren ezaugarriak betetzeko fitxa. |
| 30 min. | Brain-storming-a | | Bulegoko materiala |
| 30 min. | PKTrako testua egin. | PKT-rako kolaborazioa | |
| 15 min. | Argazki-saioa | PKT-rako irudia | Argazki-kamera. |
| 5 min. | Gogorarazi | Ekarri beharrekoak | |

Ongietorria----- **10 min.**

Tribu berria definitzeko fitxa bete----- **30 min.**

Subjektu berriaren krokisa egin, hiri-tribua izateko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izan beharko ditu: irudi jakin bat, musika gustuak, ideologia, jarduera eta kezka komunak eta nortasuna.

Brain-storming-a----- **30 min.**

Tribuaren fitxa betetzeko brain-storming-a egingo dugu. Tribua definituko duten edukiak erabakitzeko eztabaida egingo dugu eta eduki horiekin fitxa osatuko dugu (guk eramango dugu fitxa).

PKTrako testua egin----- **30 min.**

PKTrako testua egin. Argazkiak zintzilikatu ahal izateko, fotolog bat sortzea ere proposatuko zaie.

Argazki-saioa----- **15 min.**

PKTrako kolaborazioan joango diren argazkiak egingo ditugu.

Gogorarazi----- **5 min.**

Hurrengo egunean tribu berriko prototipoa janzteko arropa ekar dezatela gogoraraziko diegu. Arropa ekartzea oso garrantzitsua dela azpimarratuko dugu eta arroparik ezean, irudiak eta argazkiak ekartzea eskatuko zaie.



3. SAIOA

HELBURUAK

Gazteei euren jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
Gazteen sormen-gaitasuna bizkortzea.
Euren imaginarioa aditzera emateko irudiak sortzeko gaitasuna sustatzea.

| DENBORA | EKINTZAK | EDUKIAK | MATERIALA |
|---------|-------------------------------------|--------------------|---|
| 40 min. | Tribuari azken ukituak eman. | Tribu berria. | 1. eta 2. saioan landutako materiala. |
| 40 min. | Tribuaren manikia | Irudia eta edukia. | Parte-hartzaileek ekarritako materiala. |
| 30 min. | Flickr bat egin | Teknologikoak | Ordenagailua eta internet-a. |
| 10 min. | Gogorarazi | Materiala. | |

Tribuari azken ukituak eman----- **10 min.**
 Tribuari azken ukituak emateko lanean jarraitu.

Tribuaren manikia----- **10 min.**
 Ekarri duten arroparekin manikia egingo dugu. Ekarrirako arropa erabiliz parte-hartzaileetako bat jantzi. Material nahikorik ez balego, kartel bat egingo dugu aldizkariarekin, egunkariarekin, etab.ekin egindako collage batekin.

Flickr bat egin----- **10 min.**
 Argazkiak eta irudiak zintzilikatu ahal izateko Flickr bat egingo dugu.

Gogorarazi----- **10 min.**
 Collage-teknika erabiliz kartela egin ahal izateko, aldizkariak ekar ditzaten gogorarazi.



4. SAIOA

| | |
|------------------|---|
| HELBURUAK | Gazteek euren imaginarioa aditzera emateko, irudiak sortzeko gaitasuna sustatzea . Berdintasunean eta genero kontuetan hezteak. Espiritu kritikoa eta autokritikoa bultzatzea. |
|------------------|---|

| DENBORA | EKINTZAK | EDUKIAK | MATERIALA |
|---------|--------------------------------------|------------------------|---|
| 10 min. | Ongietorria | Pertsonalak | Bulegoko materiala. |
| 70 min. | Tribu berriaren kartela egin. | Irudia eta edukia. | Irudiak mozteko aldizkariak. Kartoi meheak eta errotuladoreak. |
| 30 min. | Lantegiaren ebaluazioa. | Ebaluazio pertsonalak. | Ebaluazio-inkestak. |

Ongietorria----- **10 min.**

Tribu berriaren kartela egin----- **70 min.**

Aldizkarietatik moztutako zatiekin kartela egingo dute.
Ekarri dituzten aldizkariekin eta irudiekin sortutako tribuaren irudia osatuko dute.

Lantegiaren ebaluazioa----- **30 min.**

Lantegiari buruzko iritzien inguruko eztabaida txikia egingo da eta ebaluazio-inkestak betetzeko eskatuko zaie.